

Herriko lehen igogailuaren
eraikunza, martxa onean

La construcción del ascensor, a buen ritmo





Lezoarren alde lanean jarraitzen dugu

Seguimos trabajando por y para las y los lezoarras

Udazkena proiektu berriekin batera iritsi zaigu Lezora eta, horrez gain, dagoeneko martxan ditugun proiektuei jarraipena emango diegu Lezoarren bizi kalitatea hobetzeko eta, egunetik egunera, gurea herri hobea izateko helburuarekin.

Era horretan, Arraitoki eremua eskualdatzeko eskaera egin genion Portuari uztailean, izan ere, espazio hori estrategikoa da herritar guztiontzat.

Horrez gain, beste proiektu batzuk ere aurrera eramango ditugu. Horien artean, Elias Salaberria kalearen berritzea edota bidegorriaren bigarren zatiaren eraikuntza, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean garatutako proiektua.

Epe laburrera, hau da; aste gutxi barru, herriko lehen igogailua eraikita egongo da gauzak behar bezala badoaz. Udal gobernu honen helburu nagusietako bat izan da, legealdi guztian zehar, herriko irisgarritasuna hobetzea eta, igogailuarekin, Altamira auzoaren eta herrigunearen arteko loturak nabarmen hobetuko dira.

Gauzak horrela, azken urteetan egindako lanak fruituak ematen jarraitzen du. Horren erakusle dira, besteak beste kultura eta aisialdiaren alorrean aurrera eramandako proiektu eta ekimenak, baina baita ere egunez egun forma hartzen doan igogailua eta datozen asteetan martxan jarriko diren proiektuak ere, hala nola; Elias Salaberriaren berritzea eta bidegorriaren eraikuntza.

El otoño ha llegado de la mano de nuevos proyectos a Lezo y, además, daremos continuidad a los proyectos que ya están en marcha para mejorar la calidad de vida de las y los lezoarras y con el objetivo de que día a día el nuestro sea un mejor municipio.

De ese modo, en julio enviamos una solicitud al Puerto para el traspaso de la zona de Arraitoki porque es un punto estratégico para todos y todas.

Además, llevaremos a cabo otros proyectos. Entre ellos, la renovación de la calle Elias Salaberria o la construcción del segundo tramo del bidegorri, un proyecto llevado a cabo en colaboración con la Diputación Foral de Gipuzkoa.

A corto plazo, es decir, en pocas semanas, inauguraremos el primer ascensor del municipio. Uno de los objetivos principales de este equipo de gobierno ha sido, a lo largo de toda la legislatura, mejorar la accesibilidad de la localidad y, con el ascensor, se mejorará de manera significativa la conexión entre el barrio Altamira y el núcleo urbano.

Así las cosas, el trabajo de los últimos años sigue dando sus frutos. Prueba de ello son, entre otras cosas, las iniciativas y los proyectos llevados a cabo en el ámbito de la cultura y el ocio. Pero, también lo es el ascensor, que día a día va cogiendo forma y los proyectos que se pondrán en marcha las próximas semanas, entre ellas; la renovación de Elias Salaberria y la construcción del bidegorri.

Santakruz ganean jaurtitako su artifizialak herritarren gustukoak izan ziren

Los fuegos artificiales lanzados la noche de Santakruz fueron del agrado de la ciudadanía



KIROLDEGITIK ALTAMIRAKO AUZORA DOAN IGOGAILUA ASTE GUTXI BARRU EGONGO DA MARTXAN

Udal gobernuaren helburu nagusietako bat izan da herriko irisgarritasuna hobetzea, baita Altamirako auzoa herrigunera hurbiltzea ere

Azken urteetan, Udala garrantzia handia ematen ari zaio herriko irisgarritasuna hobetzeari. Helburu horren baitan, joan den abuztuan, beharrezko prozedurak bete ondoren, kiroldegitik Altamira auzora doan igogailua eraikitzeko akordioa sinatu zuen eta, horren baitan, abenduan eraikita egotea adostu zen.

Eraikuntza lanak martxa onean doaz eta, ustekabekorik gertatzen ez bada, aurreikuspenekin beteko da. Beraz, aste gutxi barru herriko lehenengo igogailua martxan egotea espero da.


Era horretan, Altamirako auzoa herrigunera gerturatzea lortuko da. Halaber, proiektu honez gain, Altamirako rotodaren eraikuntza eta "Altamira guztion artean hobetzen" parte hartze prozesua ere kontuan hartuta, agerian geratzen da Udalak auzoarekin duen konpromisoa.

Gainera, igogailua eraikitzeak herria herritarren beharretara egokitzeari erantzuten dio eta, horren harira, Udal gobernuaren lehenetasunetako bat izan da, lehen egunetik, herriko irisgarritasuna hobetzearen alde lan egitea. Lezonen bizi diren herritarren bizi kalitatearen, mugikortasunaren eta ongizatearen mesedetan.

Igogailu honen eraikuntza Irisgarritasun Planean jasota zegoen eta, Irisgarritasun Plan Bertikalean jasotakoaren arabera, etorkizunean igogailu gehiago eraikitzea aurreikusita dago.

EN POCAS SEMANAS SE INAUGURARÁ EL ASCENSOR ENTRE EL POLIDEPORTIVO Y ALTAMIRA

El Ayuntamiento considera primordial mejorar la accesibilidad del municipio y, por ello, el pasado mes de agosto puso en marcha la construcción del primer ascensor del municipio. Este se inaugurará en pocas semanas, si las obras siguen su curso se espera que esté en marcha en diciembre, y estará ubicado junto al polideportivo Bekoerrota y dará acceso al barrio de Altamira. De este modo, se mejorará la calidad de vida, la movilidad y el bienestar de la ciudadanía. Asimismo, además del ascensor, proyectos como el de la rotonda de Altamira y el proceso de participación ciudadana, son la clara muestra de que el Ayuntamiento está comprometido con el vecindario del barrio de Altamira.



SE HA INSTALADO UN RADAR MÓVIL E INFORMATIVO

El Ayuntamiento continúa dando prioridad a las y los peatones y, es por ello que, con objeto de reducir la velocidad de los vehículos en el centro urbano, a principios de agosto se instaló un radar informativo y móvil que se irá alternando en tres zonas del municipio. Se trata de la calle Elias Salaberría y la Avenida Jaizkibel, dos de los puntos más transitados del municipio.

Además, Lezo Herri Eskola se encuentra cerca de la carretera y, de este modo, se pretende disminuir la velocidad de los vehículos que circulan en las inmediaciones para aumentar la seguridad tanto de las niñas como de los niños.



IGERILEKUAN MANTENU LANAK EGIN DIRA

Urtero egin ohi den bezala, irailaren erdialdean Altzateko igerilekua itxita egon da bi astetan zehar; hain zuzen ere, irailaren 10etik 24ra. Herriarren ongizatea bermatzea helburu hartuta eta baldintza onean dagoen zerbitzua eskaini asmoz egin zen itxialdi teknikoa. Mantenu lan horien bitartez gauzak behar bezala zeudela ziurtatu zen eta igerilekua joan den irailaren 24tik berriro ere erabili daiteke.

SE HA DUPLICADO LA ZONA DE APORTACIÓN DE ERREKALDE

En respuesta a las necesidades y peticiones de la


ciudadanía, estos últimos meses se han llevado a cabo las obras para duplicar la zona de aportación de Errekalde. De este modo, se han instalado contenedores en la parte baja de la cuesta para dar facilidades al vecindario, sobre todo a las personas mayores, a la hora de depositar los residuos en los contenedores. Los contenedores no se instalaron desde un primer momento en esa ubicación porque el camión de recogida no puede acceder al lugar. Pero, con objeto de mejorar la situación se ha decidido instalar contenedores a bajo para trasladar los residuos allí recogidos a la zona de aportación, donde los recogerá el camión de la mancomunidad.

EUSKARALDIA AURKEZTU ETA IZEN-EMATEA ZABALDU DA

Lezoko Udalak bat egiten du Euskaraldiarekin, izan ere, horrelako ekimenak garrantzia handikoak dira ahalik eta herritar gehienek urteko 365 egunetan euskaraz hitz egitera iristeko. Hori dela eta, Urriaren 4an Euskaraldia aurkeztu zen Gezala Auditoriumean. Euskaraldia azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean ospatuko da eta parte hartzeko aurretik izena eman behar da; horretarako epea urriaren 8tik dago zabalik.

SE HA INSTALADO UN COLUMPIO ADAPTADO EN LA PLAZA EUSKAL HERRIA

El Ayuntamiento instaló a principios de agosto un columpio adaptado en la plaza Euskal Herria. De este modo, además de avanzar en la inclusión social de las personas con diversidad funcional, el gobierno municipal continúa dando pasos para que Lezo sea un municipio adecuado a las necesidades de la ciudadanía, en esta ocasión, poniendo el foco en el ocio infantil. En esta línea, durante los últimos años se han renovado y llevado a cabo mejoras en varios parques del municipio; entre otros en Sagardiandia, Lopene, Zubitxo y Altamira.



MUSIKA ESKOLAKO IKASTURTE BERRIA MARTXAN DA

Joan den irailaren 4an eman zitzaion hasiera 2018-2019 ikasturteari Tomas Garbizu Lezoko Udalaren Musika Eskolan. Ikasturte honetan ikasleak hurrengo musika tresnetan trebatuko dira, besteak beste: trikitixa, pianoa, klarineta, saxofoia, txistua, flauta, perkusioa eta biolina. Urtero legez, kurtsu amaieran, ekainean, audizioak eskainiko dituzte.

VISITA DE LA FURGOBARATZA PARA PREPARAR EL HUERTO DE CARA AL INVIERNO

La Furgobaratza llevó a cabo el pasado 26 de septiembre la penúltima visita del año al Parque de Huertas de Lezo. En esa visita, además de resolver las dudas de la ciudadanía, se ofreció un taller para preparar los huertos de cara al invierno puesto que septiembre es el mes propicio para ello. Mediante ese taller, los miembros del Parque de Huertas aprendieron que hortalizas deben plantarse para que en invierno el huerto esté tan bonito como en verano.



UDAZKEN KULTURALAK GEROZ ETA HERRITAR GEHIAGO MUGITZEN DITU

Aurten ere, Udazken Kulturala ekitaldiz gainezka iritsi da. Kultur sailak, Udal liburutegiak eta Musika Eskolak elkarlanean antolatu dute egitaraua eta, guztira, 45 jardueratik gora eskainiko dira. Horien artean daude haur jarduerak, haur zinema, ipuin kontaketa, literatur solasaldiak, kantujira, kontzertuak, antzerkia eta Musika Eskolako jarduerak. Lehen emanaldiak arrakasta handia izan dute, hala nola, "Ez dok hiru" eta "Mandibula

afilada" antzerkiek, eta Gezala Auditoriuma gainezka egon da. Halere, hurrengo asteetan beste hainbat emanaldi izango dira, ziurrenik, eta aurrekoak bezala, paregabeak.

SE HA CELEBRADO LA SEMANA EUROPEA DEL DEPORTE Y LA MOVILIDAD

La última semana de septiembre, del 24 al 29 de septiembre, Lezo celebró la Semana Europea del Deporte y la Movilidad. Con este motivo, se han llevado a cabo varias actividades especiales con objeto de fomentar la movilidad de la ciudadanía y la práctica del deporte. Por ejemplo, se celebraron puertas abiertas en las instalaciones y las actividades del polideportivo Bekoerrota y se ofreció una exposición sobre los Paseos Saludables en la Sala de Cultura. Además, el Ayuntamiento presentó a la ciudadanía los Parques Saludables de Andreone y Euskal Herria plaza y el orientador deportivo Unai Benedited dio explicaciones sobre el uso adecuado de las máquinas instaladas.



OMENALDIAK KOLDOBIKE GEZALA ETA JOSETXO ETXANDIRI

Santakruz jaietan jolastu ohi diren pilota partiduen harira, Lezoko herriak herriko bi pilotari handi omendu zituen. Alde batetik, Koldobike Gezala eta, bestetik, Josetxo Etxandi. Gezala, Santakruz egunean jokatu ziren federatuen txapelketako finalen aurretik omendu zen eta, Etxandi, aldiz, igandean jokatu ziren txapelketa herrikoiko finalen aurretik. Hala, Bekoerrota pilotalekuari Koldobike Gezala izena eman zitzaion eta Goiko Plaza frontoiari, aldiz, Josetxo Etxandi. Halaber, pilotarien senitartekoei lore sorta eta oroigarri bana eman zitzaion.

2018AN KUDEATUTAKO HONDAKINEN %72,1 GAIKA BILDU DA EN 2018, SE HA RECOGIDO DE MANERA SELECTIVA EL %72,1



2017ko irailean aldatu zen hondakinak biltzeko sistema, horrela, herritarren behar eta eskariei erantzuna emateko eta, dagoeneko, urte bete baino gehiago daramate hondakinak edukiontzien bilketa sistemaren bitartez sailkatzen.

Sistema honen berezitasuna da edukiontzi marroia eta grisa -materia organikoa eta errefusa, hurrenez hurren-, txipdun txartelarekin zabaldu behar direla. Horrela, edukiontzi horietan egiten den bilketaren jarraipena egin daiteke bestelako hondakinik botatzen ez dela ziurtatzeko.

Azken urteetan bilketa datuak onak izan dira, baina erabilitako sistema ez zen herritarren beharretara egokitzen. Orain, aldaketaz geroztik, herritarrek sistema eroso eta erabil errazagoa dute eskura eta, horri esker,

hondakinak asteko edozein egunetan eta ordutan atera ditzakete.

Bilketa datuak onak dira

Hondakin bilketa gaika egiteak ingurugiroaren alde lan egitea dakar eta horretan ari da Lezoko herria. San Markos mankomunitatea 2015. urtean hasi zen industria guneko bilketa datuak kontuan hartzen eta ordutik, datuak mantendu egin dira.

Lehen urte horretan, hau da, 2015ean, kudeatutako hondakinaren %72,1a gaika bildu zen. Hain zuzen ere, aurtengo datuei erreparaturaz, hondakinaren ehuneko kopuru bera bildu da gaika. Beraz, edukiontzien bitartez hondakinak biltzeko sistema, herritarren beharretara egokitzeaz gain, aiposproa da bilketa gaika egiteko.



Halere, Udalaren helburua datu horiek hobetzea da eta, horretarako, sistema aldatu zenetik hainbat kanpaina egin eta hobekuntzak txertatu ditu; hala nola:

- Herriondon, ekarpen gunea jarri da
- Errekalden, ekarpen gunea bikoiztu da
- Poltsa konpostagarriak banatzen dituen makina jarri da Bekoerrotan
- Bi teknikari herritarren zalantzak argitzen izan ziren hondakin bulegoan
- Hondakinen gida banatu da
- Urtarrila eta ekaina bitartean teknikari eta orientatzaileak izan ziren herrian edukiontziaik dauden guneeetan, komertzioetan eta industriaguneeetan


- Azokan, birziklapen-tailer bereziak eskaini dira
- Herritarren zalantza ohikoenen zerrenda bat osatu da.

Halaber, joan den irailetik beste kanpaina berri bat martxan dago eta herritarren beharren arabera hobekuntzak txertatzen jarraituko da.


Helburua, %80

Datuak onak izanik ere, horiek hobetzea da Udalaren helburua eta jomuga kudeatzen diren hondakinen %80 gaika biltzea da. Hondakinak edukiontzien bitartez biltzeko sistemaren bidez datu horietara iristea posible dela erakusten dute Gipuzkoako beste udalerrri batzuk. Beraz, hondakinen kudeaketan herri onen artean egon daiteke Lezo ere.

Gaika bildutako hondakinen %



Gaika bildutako hondakinen %



LOS DATOS SON BUENOS, PERO EL OBJETIVO ES EL 80%

Ha pasado más de un año desde que se cambió el sistema de recogida de residuos. De esta manera, para poder abrir el contenedor marrón y el gris -materia orgánica y fracción resto, respectivamente- es necesaria una tarjeta. Así, se puede hacer un control de los residuos recogidos.

Los datos anteriores al cambio eran buenos, pero el sistema no estaba adecuado a las necesidades de la ciudadanía. Ahora, en 2018, se ha recogido de manera selectiva el 72,1% de los residuos gestionados. Datos semejantes a los del 2015, año en el que la mancomunidad San Markos comenzó a tener en cuenta los datos del ámbito industrial.

Aún así, el objetivo del Ayuntamiento es mejorar los datos y, para ello, entre otras cosas, se han realizado las siguientes mejoras y campañas: instalar una zona de aportación en Herriondo, duplicar la zona de aportación de Errekalde, instalar una máquina expendedora de bolsas compostables en Bekoerrotan, destinar personal técnico y orientador a resolver dudas, ofrecer talleres especiales de reciclaje en el mercado, y elaborar una lista con las dudas más frecuentes.

Con todo ello, el objetivo del Ayuntamiento es que el 80% de los residuos gestionados se recoja de manera selectiva. Cifra que otros municipios de Gipuzkoa ya alcanzan con el sistema de recogida mediante contenedores.



EAJ-PNVk instituzioen arteko lankidetzaren alde egin du beti eta konpromiso horri jarraituz, berriki, Pasaiako Portuko Agintaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak hitzarmen bat sinatu dute portuan suterik berriro gertatuko balitz erantzuna ahalik eta eraginkorrena izateko helburuarekin.

Alderdiaren lan ardatza pertsonak dira eta lezoarren ongizatearen eta bizi kalitatearen alde lanean jarraitzen dugu. Hori dela eta, eguneroko lanari esker hitz emandako hainbat proiektu gauzatu ditugu eta beste hainbeste martxan ditugu.

Akordioak ez dira egun batetik bestera lortzen, atzean lan handia dago, eta guk gogotsu eusten diogu beti herritarren aldeko jardunari.

EAJ-PNV siempre ha apostado por la colaboración entre instituciones y, por ello, recientemente, la Diputación Foral de Gipuzkoa y la Autoridad Portuaria han firmado un acuerdo para que en caso de que hubiera otro incendio la respuesta sea la más eficiente posible.

No se llega a acuerdos de un día para otro, exigen mucho trabajo, y nosotros tenemos total convicción y muchas ganas de seguir trabajando por la ciudadanía.



Gogoan dugu abuztuak 2an portuan izandako sutzarraren aurrean EAJ/PSE Gobernu taldeak izan zuen kudeaketa. Gertaera arriskutsu eta larri haren ondoren, Portuko Agintaritzari eta Algeposari azalpenak eta erantzunkizunak exijitu eta herritarren bizi kalitatea, ongizatea lehenetsi beharrean, gertaerari garrantzi osoa kenduz Portuko Agintaritzaren eta Algeposaren interesen alde egin zuten. EHBildutik 3 eskaera zituen idatzia (1-herritarrez, ordezkari politikoz eta teknikariz osatutako mahaia eratu dadila 2-salaketa formala egin dezala Udalak eta 3-informazio osoa exiji dezala) erregistratu genuen udaletxean, baina oraindik ez dugu inolako erantzunik jaso. Kasurik ez gure eskaerari. Modu hauek ohikoak ditugu. EAJ/PSE Gobernu taldearen funtzionamendua ongi azaltzen dute gure Alkate jaunak irailak 4an esan zituen hitzek: "Herritarrei eta Jai Batzordeari opari bat egitearren, legealdiko azken txanpa honetan, jubilatuen bazkaria berreskuratu eta su artifizialak eskainiko dira herritarren gozamenerako". Panem y circenses (ogia eta zirkoa)

*Oparitu? Noren dirurekin ordaindu dira ba su artifizialak eta jubilatuen bazkaria? Dirua ez da beraien patrikatik atera, "opariak" Udal aurrekontutik ordaindu dira. Kasualitatea al da "opari" hauek Udal hauteskundeak ate joka ditugunean egitea?



El PSE-EE ostenta la concejalía de Hacienda siendo el responsable de que el conjunto de tributos municipales se hayan congelado los últimos 4 años a la vez que han aumentado importantemente las bonificaciones y exenciones destinadas a colectivos tales como las familias numerosas y perceptores de RGI y AES.

Los tributos municipales repercuten en la vida y economía diaria de los lezoarras y por eso, con decisiones, entre otras, como la tomada en su día de disminuir un 15% el impuesto de vehículos a motor o realizar exenciones al establecimiento de nuevas empresas y comercios, hemos conseguido introducir medidas de apoyo en una época de crisis.

Llevamos haciendo un gran esfuerzo por cuarto año consecutivo, de hecho esta congelación significa, en términos reales, una rebaja de impuestos teniendo en cuenta los incrementos del IPC.

La situación de las arcas municipales es buena, se están realizando importantes inversiones y mejorado los servicios municipales sin cargar ni un solo céntimo de más a los vecinos. Seguiremos en ese camino.

Ingurumenaren mantentzea eta zaintza berebiziko kontuak dira Lezoko Udalarentzat eta, hori dela eta, Kutxa Ekogunearekin elkarlanean Baratze Parkea jarri zuen martxan 2013. urtean.

Baratze Parkean 60 metro karratuko 60 baratze inguru daude eta bertan herritarrek, urteko sasoiaren arabera, barazki eta fruitu desberdinak landatzen dituzte. Edozein herritarrek parte hartu dezake eta bertan jasotako uzta norberarentzat da.

Gainera, herritarrek izan ditzaketen zalantzak argitzeko, Furgobaratzak bisita egiten du hilean behin eta bisita horietan, urteko sasoiaren arabera, tailer bereziak ematen zaizkie Baratze Parkera gerturatzen diren pertsona guztiei, izan ere, bisita horiek herritar guztientzat irekiak dira.

Urrian, Furgobaratzak urteko zazpigarren bisita egingo du eta horrekin batera Jakoba Errekondo agronomoak bisitatuko du Baratze Parkea.

El cuidado y el mantenimiento del medioambiente es un tema de suma importancia para el Ayuntamiento de Lezo y, por ello, en colaboración con Kutxa Ekogunea, se puso en marcha el Parque de Huertas en el año 2013.

El Parque de Huertas lo conforman cerca de 60 huertos de 60 metros cuadrados y la ciudadanía, en función de la época del año, planta diferentes frutas y hortalizas. Puede participar cualquier lezoarra y la cosecha es para cada cual.

Además, con objeto de resolver las dudas de la ciudadanía, la Furgobaratza realiza una visita mensual al Parque de Huertas y en ellas, dependiendo de la época del año, se ofrecen diferentes talleres a todas las personas que acuden a la cita, ya que dichas visitas son abiertas a toda la ciudadanía.

En octubre, la Furgobaratza realizará la séptima visita del año y traerá consigo la visita del agrónomo Jakoba Errekondo al Parque de Huertas.




Jakoba Errekondo agronomo eta paisajista gipuzkoarra da. Hau da, nekazaritza hazkundera ahalik eta modu egokienean burutzeko ikuspuntu ekonomiko zein ekologikoak kontuan hartzen ditu. Jakoba ezaguna da hainbat hedabidetan landare, lore, zuhaitz eta antzeko gaien inguruko solasaldietan parte hartzeagatik. Gainera, "Landareak lantzen" urte osorako gida-liburua argitaratu du Antton Olariagarekin elkarlanean.

Urriaren 23an, Furgobaratzak Lezoko Baratze Parkera egingo duen bisitarekin batera, Jakoba Lezora hurbilduko da eta, bisita horren harira, elkarrizketa egin diogu.

Jakoba Errekondo es un agronomo y paisajista guipuzcoano. Es decir, su trabajo se centra en mejorar los procesos de la producción agrícola teniendo en cuenta tanto la perspectiva económica como la ecológica. Jakoba es conocido por participar en varios medios de comunicación tratando temas relacionados con plantas, flores y árboles. Además, recientemente, ha publicado la guía "Landareak lantzen" en colaboración con Antton Olariaga.

El 23 de octubre, junto a la visita que la Furgobaratza llevará a cabo al Parque de Huertas, Jakoba acudirá a Lezo para tratar de dar respuesta a las consultas de la ciudadanía y, a raíz de esa visita, hemos realizado una entrevista con él.



Argazkia: Argia

Azken urteetan herri baratzeak indarra hartzen ari dira. Zergatik uste duzu ari dela hori gertatzen?

Jakoba Errekondo: Nire ustez, jendea jabetzen ari da, alde batetik, elikadurak duen garrantziaz, eta kalitatezko elikadura hartzeko egokiena bakoitzak berea egitea da. Kultura bat dago horren atzean, gure gurasoek eta aurreko belaunaldiak zuten jakintza. Hori galtzen ari garen sentsazioa dago eta berreskuratzeko oso baliagarria da. Bestalde, lurrera bueltatzeko joera dago, hau da; ingurumena eta natura lantzeko ikuspegia dago. Beraz, hori guztia eta ikuspegi ekologikoa kontuan hartuta, jendea lurra lantzerantz bueltatzen ari da: baratzeak, bisita eta ibilbide gidatuak etabar. Hori dela eta irekitzen ari dira herri baratzeak eta, Lezoren kasuan, Udala jabetu da herriarentzat oso interesgarria dela.

Zein garrantzia esango zenuke dutela baratzeek gure kultura eta paisaian?

J.E.: Gure kultura betidanik izan da oso garrantzitsua baratzea. Lehen etxe guztiek bere baratzea zuten, nahiz eta garrantzirik ez eman, izan ere, bazirudien baserriek maila handian ekoiztu behar zutela; izan ganadua, sagardoa edo dena delakoa. Baina, beti izan dira baratzeak eta horietan ez dira egon bakarrik barazkiak, besteak beste; landareak, sendabelarrak, usain-landareak, zuhaitzak eta loreak ere izan dira. Hortaz, baratzeak garrantzia izan du betidanik etxearen inguruan; ez bakarrik jateari lotuta, baizik eta elikadura espirituala ere ematen zuen. Horrek ekarri du fisiologia berezia izatea baratzeek etxeen inguruan eta gure paisaian garrantzia handia izatea. Nondik dator kultura hitza? *Cultivaretik*, lurra lantzetik. Lurra lantzeak aukera eman zigun garun handiagoa izateko, hobeto pentsatzeko, lasai egoteko... kultura guztia baratzeari zor diogu.

“Baratzeak garrantzia izan dute betidanik etxearen inguruan; ez bakarrik jateari lotuta, baizik eta elikadura espirituala ere ematen zuen”

Zergatik dira garrantzitsuak Baratze Parkeak?

J.E.: Administrazioaren, politikarien zein teknikarien, inplikazioa ekartzen du eta herri batek herri proiektu bezala planteatzea herri baratzeak izatea oso garrantzitsua dela uste dut. Horri erantsi behar zaio baratzeak taldeka egitea, hau da, nik nire baratzea dut baina elkarte baten barruan eta gainontzekoekin hartu eman bat dago tresnak erabiltzeko, ura kudeatzeko etabar. Horrek suposatzen du guztionak direla, ez dira baratze partikularrak.

“Herri batek herri proiektu bezala planteatzea herri baratzeak izatea oso garrantzitsua dela uste dut”

Lezon Baratze Parkeak 5 urte daramatza martxan. Orain arte bertan nahasi ez diren herritarrei zergatik gomendatuko zenieke parte hartzen hastea?

J.E.: Baratzeak onura ekartzen du: ariketa egiten da eta kalitatezko elikadura lortzen da. Gainera, etengabe ikasteko tokia da jatorri desberdineko herritarrak elkartzen direlako eta, horrek, sekula probatu ez diren fruitu eta barazkiak probatzeko aukera ematen du. Horrez gain, oso garrantzitsua iruditzen zait baratzeak denboraren beste neurri bat ematen duela. Hau da, presaka bizi den gizarte batean bizi gara eta baratzeak bere denbora behar du. Esaterako, letxuga bat landatzean badakigu hilabete bat edo bi itxaron beharko dugula hori

jateko. Denboraren pertzepzio naturala izaten laguntzen digu eta, nire ustez, hori osasuntsua da.

“Baratzeak onura ekartzen du: ariketa egiten da eta kalitatezko elikadura lortzen da.”

Udazkenean murgildu gara dagoeneko. Urteko sasoi hau oparoa da? Zerbait berezia egin behar da baratzea emankor mantentzeko?

J.E.: Urteko sasoi hau guztietan oparoena da. Udako ekinozioa pasa dugu, hau da, gaua eguna baino luzeagoa da eta horrek esan nahi du landareak beren haziak prestatzen ari direla hurrengo urtean bera bezalako landare berriak sortu ahal izateko. Hazi horiek fruituetan etortzen dira eta, horregatik, fruituetan oso garai oparoa da hau, adibidez, sagardi eta mahatsetan.

Oparotasun horretaz gain, jakitun izan behar dugu orain egiten ditugun lanak hurrengo urterako direla. Azaroa oso garrantzitsua da ongarrrien ikuspegitik. Urteko guztiko ongarritze nagusia azaroan egin behar da gerora neguko hotzekin lurrera sartu dadin ongarrri guzti hori. Horrela, hurrengo udaberrian landare berriak orain lan horretaz baliatuko dira.

Zure iritziz, zein etorkizun izango dute baratzeek gure gizartean?

J.E.: Geroz eta baratze gehiago ikusiko dugu. Gure gizarte oso aberatsa izan da diruz, baino neurri batean horrek lurra ahaztuta utzi izana ekarri du, lurraren lanketa, alegia. Basoak garrantzia handiagoa hartu du, baina uste dut baratzeak bueltan datozela eta geroz eta gehiago jarriko direla inguruko, bertako eta garaian garaiko produktuak geroz eta gehiago eskatuko ditugulako.



BARATZE PARKEKO EGURREZKO ZUBITXOA BERRITUKO DA

Baratze Parkeko kideen eta Furgobaratzearen bisitetara gerturatzen diren herritarren mesedetan, Baratze Parke albotik doan erreka gurutzatzen duen egurrezko zubitxo berrituko da. Errekaren ur-jarioak zubitxoaren egoera hobetu beharra ekarri du eta lanak azaro amaieran astea aurreikusita dago.

URRIA OCTUBRE

- 20 Sing Street (Haur zinema)
Harri zopa (Haur zinema)
Kantujira (TGLUME)
- 21 Etxeko saltsak (Antzerkia)
- 24 "Basoan galdu" (Ipuin kontaketa)
- 26 Txirriski txoriaren ipuin musikatuak
(Haur jarduera)
- 31 "33 ezkil" (Literatur solasaldia)

AZAROA NOVIEMBRE

- 7 "Otsoa dator!" (Ipuin kontaketa)
- 9 Denboraren taupada (Haur jarduera)
- 10 Ballerina (Haur zinema)
- 11 "Rámper" (Antzerkia)
- 14 "Maleta kontuak" (Ipuin kontaketa)
- 17 Kantujira (TGLUME)
Santa Zezilia kontzertua (TGLUME)
- 18 Santa Zezilia kalejira (TGLUME)
- 20 "La flor púrpura" (Literatur solasaldia)
- 21 "Ipuinen lapikoa" (Ipuin kontaketa)
- 23 Akordeoi audizioa (TGLUME)

Banaiz (Antzerkia)
Azuzainaren kontakizuna (Haur jarduera)

- 25 Lo que queda de nosotros (Antzerkia)
- 28 "Mariaje Potaje" (Ipuin kontaketa)

ABENDUA DICIEMBRE

- 1 Tormeseko itsumutila (Haur zinema)
Le chef (Haur zinema)
- 2 Zazpi senideko (Antzerkia)
- 3 Euskararen Eguna (TGLUME)
- 12 "Izenik gabeko lurrak" (Literatur solasaldia)
- 14 Jon Braun (Haur jarduera)
- 15 Santomas egunaren ospakizuna (TGLUME)
Gabonetako kontzertua (TGLUME)
Kantujira (TGLUME)
- 16 Juan Mari Beltran: "Hots larretan" (Kontzertua)
- 19 Gabonetako audizioa (TGLUME)
- 20 Gabonetako kontzertua (TGLUME)
- 21 Gabonetako kontzertu korala (TGLUME)
- 22 Olentzero eta amilaren sekretua (Haur zinema)
- 24 Gabonak, hator-hator kantatzera (TGLUME)
Aiton Bordakoekin kalejira (TGLUME)
- 31 Urte amaierako kopia zaharrak (TGLUME)



HAUR JARDUERETARAKO SARRERAK
GEZALA AUDITORIUMEAN
ESKURA DAITEZKE
EKITALDIA HASI BAINO LEHEN
EKITALDI BATETARAKO SARRERAK 2€

HAUR JARDUERETARAKO ABONOA
KULTURA SAILEAN,
ASTELEHENETIK OSTIRALERA
09:00etatik 13:00etara
SEI EKITALDIETARAKO ABONOA 6€

Gezala AUDITORIUMA
SARRERA 2€

Gezala AUDITORIUMA
ABONOA 6€

Lezoko Unibertsitateko Udala



@LezokoUdala



@LezoUdala

DESKARGATU LEZO ESKURA JARRIKO
DIZUN APP-A

DESCARGA LA APP PARA CONOCER
TODA LA PROGRAMACIÓN

